

Balizko oleak...

Izenburua: Suminez. Jatorrizko izenburua: *Indignation*. Egilea: Philip Roth (Newark, 1933). Itzultzailea: Nagore Tolosa Ustoa. Argitaratze urtea: 2009. Argitaletxea: Meettok.

ANDER ARANA

PHILIP Rothen lan hautatuen lehen bi liburukiak argitaratu dira orain dela gutxi *Library of American* -azkena, zortzigarrena, 2013an argitaratuko bide da-, eta hori omen da Estatu Batuetan idazle bati egiten ahal zaion aintzarik handiena; izan ere, Roth, askoren ustez, Estatu Batuetako literatura garaikideko egilerik garrantzitsuena da. Hark irabazitako sarien zerrenda egiten hasita lerrook sarien izenez beteko liratekeenez, horietako apur batzuen

aipamena baino ez dugu egingo: Pulitzer saria, Arteen Domina Nazionala, AEBetako Arteen eta Letren Sari Nazionala, Narrazio Sari Nazionala (birritan), PEN klubaren saria eta abar.

Suminez egilearen hogeita bederatzigarren liburua da, eta euskara ekarritako lehena. Asko dago oraindik euskaratzeko, besteak beste Philip Roth beraren liburuak, baina, zorionez, gero eta ohikoagoa da erdarazko eleberrien gaztelaniazko nahiz euskarazko bertsioren argitalpenak batera iristea merkatura. Ondo egongo litzateke Nagore Tolosa deliberratu-tuko balitz Suminez itzuli duen bezain polito itzultzera euskaraz egon beharko luketen Philip Rothen beste eleberri batzuk, esaterako *Portnoy's Complaint*, *The Plot Against*

America, *American Pastoral*... Bestela, ikusita Philip Roth urtero agertzen dela Nobel saria irabazteko hautagaien artean, zain egon beharko dugu Rothi Nobel saria eman arte eta Jokin Zaitegi bekari esker haren beste lanen bat euskaraz gozatu ahal izan arte.

Suminez irakurtzean, Rothen beste eleberri batzuetako oihartzuna helduko zaio irakurleari, bere liburuetan behin eta berriro ageri diren obsesio ia guztiak jorratzen dituelako honetan ere: familia-harremanak, sexu-harremanak, judu izatearen zama -“zer ari dira egiten gizon hau isilarazteko?” galdetu omen zuen errabino ospetsu batek Rothen lehen liburua argitaratu eta gutxira-, eguneroko bizitzan bero-beroan hartutako erabaki txikiek izan ohi dituz-

ten ondorio lazgarriak... Heriotzaz haratagotik ari den ahotsa ere ez da berria haren lanetan, *Everyman* (2006) eleberrian erabili zuen-eta Rothen. Eta ia bere eleberri guztietan bezala ere, bere bizitzatik hartutako xehetasunak emango dizkio Rothen eleberriko protagonista Marcus Messneri (bera bezala, judua da, eta Newarken 1933an jaioa), baina oraingoan jaioterritik urrun eramango du, Winesburgeko campusera; alegia, Sherwood Anderson idazleak (Ohio, 1876-1941) asmatutako hirian girotuko du kontakizuna. Hau da, Suminez Rothen betiko liburua dela esan daiteke, baina baita sekula idatzi ez duena ere.

Liburuko protagonista Marcus Messner; Newarkeko kosher harakitanaren semea, edozeinek nahiko

lukeen semea da: argia, azkarra, langilea, prestua... baina baita menderakaitza ere, eta horrek galbidean jarriko du. Aitak ezarri nahi dion kate motzetik ihesi, urrutiko unibertsitate batera doa emaitzarik onenak lortzera, hartara Koreako gerra saihestuko duelako esperantzan. Baina bere izaera menderakaitz horrek gelakideengandik ere ihes egitera eramango du, Caudwell errektoreari aurre egitera eramango du -harekin duen eztabaida sutsuaren zati handi bat Bertrand Russellen *Why I am not a Christian* hitzaldi gogoangarritik hartua da-, zainak moztu zituen Oliviarengana eramango du eta, azken finean, Korean, Sarraskiaren Mendian, aitaren harategiko oilasko baten modura odolustera eramango du.